

# AUZO BIRA

## AUZO BIRA

2023-2027 legegintzaldiko gobernu planaren azalpena



## HERNANI AUZO BIRA, 2026

- Bizilagunekin bilera erronda -

### KAXKO-ERDIGUNEA. BATZARRAREN AKTA

DEIALDIA	EGUNA	2026-01-21
	ORDUA	18:30-20:00
	TOKIA	Biteri

#### PARTE-HARTZAILEAK:

Emakumeak	Gizonak	Guztira
23	7	30

- Udal ordezkariak: Xabier Lertxundi, alkatea; Ainara Atorrasagasti, Hirigintza eta ingurumeneko zinegotzia; Patxi Iburguren, Tokiko Garapena, Turismoa eta Merkataritza zinegotzia; Aitor Lukas, Gazteria eta Partaidetza zinegotzia. Elena Calvar, partaidetza teknikaria.
- Dinamizazioan: Farapi Kooperatibatik, Gabriela Renteria eta Leire Kortajarena.

#### HIZKUNTZA:

Saioa euskaraz egin da, berehalako itzulpena egin zaio bizilagun bati.

## 0. AUZOZ AUZOKO SAIOEN KOKAPENA ETA AURKEZPENA

Lehenik eta behin alkateak hitza hartu du eta parte hartzaileei ongi etorria eman die. Zinegotziak eta Farapiko kideak aurkeztu eta landuko duguna azaldu du.

Farapi kooperatibak, ongi etorria eman die bertaratutako bizilagunei. Ondoren, saioaren nondik norakoak eta helburuak azaldu ditu. Halaber, hizkuntzaren erabileraren inguruko azalpenak eman ditu. Esan bezala, aurkezpenak elebitan izan dira eta hitzartzeak bakoitzak erabakitako hizkuntzan.

Amaitzeko, jardueran zehar parte hartzea nola kudeatuko den eta ordutegia zein izango den zehaztu du. Hala, Hernaniko Udal ordezkariari eman zaie hitza.

## 1. AURKEZPENAK

Aurkezpenari hasiera emateko, Udalak 2023-2027 Gobernu Planaren eguneraketa azaldu du.

- Guztiz beteta %51,9 (70 ekintza)
- Betetzera bidean %36,3 (49 ekintza)
- Betetzen hasi gabe %11,8 (16 ekintza)

Jarraian, herri mailan egingo diren neurri nagusiak aurkeztu dituzte:

- Kultur ekipamendu berria, lehiaketa bidez aukeratua izango dena (udara aurretik aukeratua)
- Gune tentsionatuaren izendapena, hilabete honen amaieran jasotzea espero dena. Udaletik, horrekin batera, planifikatu den 3 urteko ekintza-plana eta etxebizitza behatokiaren sorrera, etxebizitzaren alokairuaren inguruko bitartekaritza.
- Plaka fotovoltaikoak jartzeko Henerkomekin egindako hitzarmena, Hernanin sortzen den energia kudeatu eta kontsumoa bultzatzeko.
- Mantentze lanetarako 2. plana (asfaltatzea). Zona honetan:
  - o Marielutsetik Urbietarako malda
  - o Latsunbe 4 pareko bidegorri eta aparkalekua
  - o Sorgintxulotik Meaberako bidea
- Auzozaintza programa, adinekoei bideratutakoa.

Ondoren, bereziki Kaxko-Erdiguneari dagozkion eskuhartzeak azaldu dira:

- Igogailua
- HS03, igogailuaren kokapena eta inguruko garapen urbanistikoa
- Txotx denboraldia
- Etxe hutsen problematika
- Biteriko berogailua
- Zabor ontziak
- PERCH-a
- Aparkaleku arazoak
- Ave Maria

Jarraian, herritarrek Udalera bideratzen dituzten eskaeren inguruko azalpena eman da Udaletik. Jasotzen den eskaera kopuruak ezinezko egiten du ekarpen guztiei erantzuna ematea, batez ere epe labur batean. Hori dela eta, autokritika egin eta egungo sistemari buelta bat ematearen beharra azpimarratu da.

Honekin batera, espazio honek ematen duen aukeraz baliatuz, Udaletik martxan jarriko den inklusiorako zentroaren nondik norakoak azaldu dira: herrian gizarte egoera zaurgarrian bizi diren 12-15 lagunentzako zentroa izango da, gaur egun Udaltzaingoa dagoen tokian kokatua egongo dena. Aldundiarekin elkarlanean diseinatu den zerbitzua da, Gizarte Zerbitzuen Legeak dionari erantzuten dio.

Auzotarrek egindako proposamenen bilakaeraren berri ematea etorri da jarraian:

- Txantxila: Aristizabaleko sumideroa
- Kaxkoa: aparkalekuak Kaxkoko tailerrentzat, enpresen isuria, zigarro muxkinak jasotzeko kanpaina, garbitasuna, naturalizazioa, mugikortasuna
-

## 2. BIZILAGUNEN EKARPENAK

Udal ordezkarien aurkezpenaren ondoren, bizilagunei ekarpenak, zalantzak eta iradokizunak egiteko tartea eskaini zaie.

HERRI LANAK	
Zaborrontziak	<p><i>Zaborrontzietako poltsak handiak badira ere, zaborrontziak txikiak dira eta askotan zakarra atera egiten da, gainezka egiten du.</i></p> <p>Gai honekin elementu ezberdinak elkar trukutzen dira, izan ere askotan jendeak zakarrontzi hauek etxeko zakarra botatzeko erabiltzen dituztela eta ez daude horretarako diseinatuak, ondorioz gainezka egiten dute. Hala ere, zakarrontzien diseinua aldatuko da, berri batzuk enkargatu dira eta ezarriko ditugu.</p>
Zaborrontzi gehiago	<p><i>Zakar asko pilatzen den tokietan, markesinetan esaterako zakarrontzi gehiago jartzea. Bizilagun batek azpimarratu du, beste tokiekin batera, Zinkunegiko markesinan jarri beharko litzatekeela.</i></p> <p>Honen kontzientzia badugu udalean eta dagoeneko hau martxan dago, hurrengo hilabeteetan zakar asko sortzen den puntuetan eta markesinetan ere diseinu berria duten zakarrontziak instalatuko dira.</p>
Kale garbiketa	<p><i>Sagardotegi denboraldian urarekin garbitzen dituzte kaleak baina hortik kanpo ez omen da egiten eta igandetan lurra zikin egoten da.. Hau horrela, asteburu normaletan ere zerbitzu hau mantentzea nahi dute.</i></p> <p>Txotx garaian, egia da, errefortzatu egiten direla lanak eta bestetan astelehenean pasatzen da mangera. Hor denak gustura egoteko oreka bilatu behar da, izan ere igandean tabernariak berandu itxi badute eta astelehenean garbiketa lanak atzeratzen baditugu gerta liteke lehen orduak kaleak zikin topatzea... baina honetan lanean bagabiltza eta gure helburua oreka hori bilatzea izango da.</p>
Kale garbiketa	<p><i>Elizatxo ikastolako eskailerak astelehen goizetan kristalez josita egoten dira, bereziki haurrentzat duen arriskuarekin. Egia da abisua pasatzerakoan segituan datozela baina igandetan pasatzeko aukerarik bai?</i></p>

	<p>Beste ekarpenei erantzunez ere, Kaxkoko garbiketa lanen ordutegi sistema gainbegiratuko da eta hau ere honen barruan landuko da.</p>
Kale garbiketa	<p><i>Garbitzaileak goizean goiz hasten dira garbiketa lanetan, (6:10etan) eta zarata asko sortzen dute sopladorearekin, oso desatsegina da eta ordu betez aritzen dira. Adierazi da enpatia gutxi dagoela bizilagunekiko eta honen inguruko jarraipena egitea eskatu du.</i></p> <p>Gai honen jarraipen eta lanketa egin izan dute, sopladore elektrikoak jarri zituzten baina hein batean, txikiagoa bada ere, soinua ateratzen dute. Hala ere, abixua pasata dago eta berriro ere hitz egingo dute beraiekin agian bestelako sistema bat jartzeko eta kaxkoan garbiketa lanekin beranduago hasteko.</p>
Kale garbiketa	<p><i>Gune batzuk hobeto garbitzeko eskaria egin dute, besteak beste Atsegindegi ingurua noizbehinka mangeratzea, poligonoen ingurua sakonago garbitzea... azken honetan egiten dena ez da fina izaten.</i></p> <p>Egia da toki batzuei lehentasuna ematen zaiela baina hala ere parte pasako dugu.</p>
Zigarro muxkinak	<p><i>Zakarrontziek zigarro muxkinak botatzeko kutxatxo izatea eskatu du.</i></p> <p>Diseinu berriekin hau txertatzeko aukera legoke eta aztertuko da.</p>
Kale Nagusiko soinua	<p><i>Tabernariak mahaiak kanpoan uzten dituzte eta goizean kamioiak pasa behar dutenean ez dute tokirik izaten eta iskanbila sortzen da goizeko 7:30tan. Oso desatsegina da eta jakin nahiko nuke eta tabernariak mahaiak uzteko baimena duten eta ezezko kasuan zerbait egin beharko litzatekeela uste dut.</i></p> <p>Izatez tabernariak Kale Nagusian ezin dituzte mahaiak kanpoan utzi, ez dute horretarako baimenik. Beste kale batzuetan, gutxi batzuk baimen berezia badute espazio falta dela eta baina baimenak ematerakoan mahaiak oztopatzen ez duten tokian jartzeko izaten da. Beraz, honen jarraipena egingo da.</p>

UDALTZAINGOA	
Tabernarien ordenantza	<p><i>Bizilagun batek adierazi du, tabernekin ez dutela terrazetan sortzen duten zakarra jasotzen eta askok ez dituztela hautsontziak ere jartzen lurra zigarro muzkinez betez. Terrazen ordenantza berriaren arabera, garbiketa lanak egitea beraien ardura dela aldarrikatu du, beraz norbaitek ordenantza batetzen dutenaren jarraipena egin behar du.</i></p> <p>Zigarro muzkinak arazo handia bilakatu dira, izan ere hauek lurrera botatzea normalizatu dugu. Alde batetik hor gizarte gisa erronka handia dugu kontzientziazio lan bat egitea beharrezkoa da. Hala ere, tabernen terrazetan sortzen den zakarra jasotzeko ardura tabernariek dute eta horrela dago ordenantzari jasota beraz, betetzen ez bada jarraipen zorrotzagoa egin beharko dugu. Udaltzaingoak izango luke jarraipena egiteko ardura eta horrela adieraziko diegu.</p>

HIRIGINTZA	
Zebrabidea	<p><i>Aristizabal kaleko zebrabidea oso gutxi errespetatzen dute autoek. Oso txikia da eta eremua zaila da, maldan dago eta jendea abiadura handian joaten da. Zebrabidean argiak jartzea edo bisualago egitea eskatu dute.</i></p> <p>Honen inguruko lanketa egitearen konpromezua hartu dute, dagoeneko hau lantzen hasi dira.</p>
Bidegorria	<p><i>Urbieta kaleko bidegorria ez da ikusten eta hau pintatzeko eskaera egin da liskarrak sortzen baitira.</i></p> <p>Mugikortasun plana amaitzean dago eta bertan Hernani osoko bidegorria berregituratuko da eta planteamendu orokor bat egingo da, ez bakarrik dagoena pintatuz baizik eta bidegorri segurua eraikitze helburuz. Beraz honetan lanean gabiltza eta laister egongo da erantzun bat.</p>
Fuera portales	<p><i>Fuera portales gunea, oinezkoen bidea hobetzea eskatu da.</i></p>

	<p>Hori 135 neurri horietako bat da. Lizeaga eta Larramendiko hoditeriak aldatzearekin batera egingo da hau. Ez luke zentzurik izango orain hori egin eta gero hoditeria aldatzerakoan berriz dena puskatzea. Udararen konkursora atera genuen, ez zen enpresarik aurkeztu. Orain beste bide bat lantzen ari gara zuzenean enpresarekin negoziatzen gabiltza eta hurrengo astean berriak izango ditugu.</p>
Igogailua	<p><i>Galdetzen dute eta aurkeztu duten proposamena definitiboa den edo aldaketarik egongo den.</i></p> <p>Udalak proiektua jaso du eta gauza batzuk lantzen, zehazten dabilta baina orokorrean proiektua aurkeztu dutena litzateke. Oraingoz marrazki bat aurkeztu dute, jendeak errazago ulertzeko baina hurrengo asteetan irudi zehatzago eta txukun bat aurkeztuko dute eta auzotarrei helaraziko zaie.</p> <p>Gainera Otsaileko bilera erabiliko da informazio eguneratzeko eta azken proposamena auzotarrekin konpartitzeko.</p>

ETXE BIZITZA	
HS03	<p><i>Bizilagun batzuen iritziz eta ustean, proiektu honen planteamenduan aldaketak egin dira, Kontziente dira arauak ez dirala badakite baina eraikinen forma aldatu dela diote; gaur egungo formak espazio bisual gehiago hartzen duelakoan eta hau zergatik pasa den jakin nahi dute.</i></p> <p>2011tik dago eraikigarritasuna zehaztuta (zenbat etxe, zenbat metro karratu...). Beste gauza bat da promotorak nola gauzatzen duen, entitate pribatua den heinean udalak eragiteko gaitasun gutxi du, hala ere auzotarren artean dauden kezka eta ezinegonen kontzientzia izanik, haiekin adostu da altuera txikitzea (5 metro gutxiago izango ditu eraikin batek), ahalik eta gutxien inpaktatzeko.</p> <p>Udaletik adierazten da, auzo kideek adierazten duten hasierako proiektu hori ez dela inoiz existitu, ez dela sekula aurkeztu. Hala ere, legedia oinarri izanik eta bertako irizpideak errespetatzen badira promotorari bestelako proiektu</p>

	<p>alternatibo bat aurkezteko aukera egon daitekeela adierazi du udalak eta hori elkarrekin lantzeko prestutasuna erakutsi du.</p> <p>Gai honen bueltan, gauza asko daude argitzeok beraz, udalak konpromezua hartu du honen inguruan gehiago sakontzeko eta denek informazio berdina izateko otsaileko bileran gaiari espazio bat eskainiko zaiola, orain arteko ibilbidea konpartitu, proiektua ondo azaltzeko eta aukera berriak egon daitezkeen arakatzeko.</p>
--	---

Merkataritza	
Feria	<p><i>Bizilagun batek ekarpen edo elementu ezberdinak konparitu ditu Feriaren gaia dela eta. Alde batetik, Furgonetan espaloitik pasatzen direla adierazi du, horrek duen arriskuarekin. Karrero frentean hasten dira montatzen eta lehengoak direnak muntatzen hasten dira eta ez dute pasatzen uzten. Lehen feria zegoen tokian ez zen hori gertatzen. Orain anbulategi atzean elkartzen dira anbulatzia inguruko taberna eta komertzioen kamioiak, garagera sartu nahi duten bizilagunak, despistaturen bat... kriston "pitoteak" montatzen dira eta oinezkoentzako pasoa oztopatzen da eta askotan espaloitik ibiltzen dira. Honen aurrean feria tokiz aldatzea eskatzen du.</i></p> <p><i>Honekin batera ere, jai egunak direla eta feria egunez aldatzerakoan, aparkamenduaren araudia erregulatzeko eskatzen du, izan ere egun aldaketak daudenean postu asko ez datoz eta ez dituzte horrenbesteko aparkaleku behar.</i></p> <p>Udaltzaingoarekin komentatuta dago gai hau. Sistema bat jarri beharko dute udaltzaingoan beti presente egon gabe jarraipena egin ahal izateko eta ondo erregulatzeko. Izan ere, honetan, muga handia dugu ordutegia dela eta. Udaltzaingoak ezin du bertan hori erregulatu egon momentu berean eskoletan egon behar dutelako, beraz bestelako sistema bat sortu behar dugu. Azkenik, feria tokiz aldatzea ez da planteatzen, pandemia ostean baloratu zen eta horrela mantentzea erabaki da.</p>

## PARTAIDETZA

HS03, igogailuaren kokapena eta inguruko garapen urbanistikoa

*Otsailean etxebizitza eta igogailu berriaren inguruko lurren birplantea mendurako foro bat sortuko da bizilagunekin lantzeko eta bertan zer egin erabakitzeko. Jakin nahi dute ea espazio honetan ere etxebizitza proiektuaren inguruan hitz egiteko aukera egongo den.*

Udalak baietz erantzun du eskari honi eta foroaren lehen bilera horretan proiektu osoaren inguruko informazio osoa eta egokia emateko erabiliko da. Etxebizitza proiektuak izan duen bilakaera azaldu eta egun dagoen proiektua aurkezteaz gainera, igogailuaren azken bertsioa konpartituko da.

### 3. ITXIERA

Ekarpenen tartearen ondoren, Farapik hitz egindakoa borobildu du eta honako gako nagusiak nabarmendu ditu:

- Kaxkoko **zinkikeriari** eta **garbiketak** sortzen dituen albokalteek izan dute protagonismoa, erronka partekatua herritarren eta Udalaren aldetik.
- Honekin batera, herriko **bidegorri** sarearen egoeraz eta feria egunetako **aparkalekuez** ere jardun dira bizilagunak.
- Azkenik, otsailean hasiko diren saioetan gehiago sakondu eta informazio zehatzagoa emango bada ere, **igogailua** eta honekin batera doan urbanizazioak kezka ugari sortu ditu.
- Partaidetza eta deboluzio espazioen **balorazio positiboa** egin da, eta egindako lana aitortu da ere.
- Egin diren ekarpenak **aktan jasota** geratuko direla gogorarazi zaie bertaratutakoei.

Amaitzeko, alkateak Udalaren komunikazio-kanalak gogorarazi ditu, urtean zehar erabili ahal izateko: aurrez aurre, telefonoz eta Internet bitartez. Eskerrak eman dizkie partaideei etortzeagatik eta saioa euskaraz egiteko aukera emateagatik.

### 4. FITXETAN JASOTAKO EKARPENAK

Saioaren amaieran, bizilagun batzuek idatziz adierazi dituzte bestelako proposamen eta kezkak, banatu zaien fitxa batean.

#### 1) Udal arduradunek egin duten aurkezpenetik zerk piztu dizu arreta? Zer dela eta?

- Artzietaserako sarbidea mugatzen duen pibote mugikorra hondatuta dago duela bi urte.
- Antzietako aparkalekuko angulua gaizki dago
- Tiloa babestuta badago ere, igogailuaren gaiarekin kontuan izatea
- Arauak eta ordenantzak betearazteko ardura hartzea: garbiketa, tabernariak, herritarrek egin beharrekoak... Herritarrei salaketa egitea eskatu izan bazaigu ere, ez da herritarren ardura
- Aparkalekua Oartzu kalean
- Etxebizitzen prezioa
- Telefonicako antena
- Kiroldegian 0-12 hilabeteko haurrekin sartu ahal izatea
- HS.03.1 eremuari buruzko prozesu partehartzailea irekitzea. Kezka baino, bidezko eskakizuna da
- Oinezko eremu gorriak arriskutsuak dira, oraindik ere gidari batzuk errespetatzen ez dituztelako. Bozina jotzen dizute ez bazara lerro zurietatik pasatzen. Ikusgarritasuna nola eman?
- Herriaren garbiketa eta trafikoa
- Leki gogorren naturalizazioa
- Korridore berdeak Urumea ibaiaren ertzetatik
- Airearen kalitatea
- Partaidetza eza
- Umeentzako parke dibergitarriak (komunplio, txirrista, punktrak...)
- Kohesistentzia guner berriak
- Pertsona helduentzako alokairuzko etxebizitza irisgarri gehiago

#### 2) Zeintzuk dira zure kezka edo behar nagusiak momentu honetan?

- Zebrabidea Elkano kalean, Dori tabernaren parean ez da errespetatzen
- Argazkiak edo beste zerbait jarri beharko litzateke, istripuak egon izan bait dira

- Garbitasuna hobetzea. Adi uso kakak! (eta txakurren pixak eta kakak). Pertsonak ezin badute pixa egin kalean, txakurrek ezta ere
- Atez ateko sisteman heziketa lana burutu norberak ardura har dezan ongi egiten. Gantxoetan zintzilikatu lurrean utzi gabe...
- Haize handiko egunetan langileei eskatu ontziak ondo lotzea errepidean zabaldu ez daitezten.
- Zaborrontzi gehiago
- Zinkoeneako "Media luna" plaza zuhaitzez inguratu
- Elizako fatxada acero corta (?) "jardinesekin" inguratu
- Taxien paradako espaloia eta pareko zuhaitzak landatzeko txokoak sortu
- Gauza berde gehiago (polikiroldegiko komunak dauden goiko espaloian zuhaitzak jartzea, esaterako)
- Espaloiak eta errepideak errebisatzea, askotariko herritarrek arazorik ez izateko

**3) Ba al daukazu auzorako proposamenik edo behar berriren bat nabaritzen al duzu?**

- Auzozaintza oso interesgarria eta baliotsua
- Etxebizitza hutsen behatokia
- Energia komunitatea
- Oinezkoen eremuak zabaltzea oso beharrezkoa
- Bidegorriak birplanteatzea interesgarria
- Txotx garaian hartutako neurriak
- Puff, egiten dituen modura lanak zaila egiten zait zerbait esatea. Auzobirak fruituak ematen baditu, izan daiteke neurrietako bat.
- Kultur gune berriko aparkalekua

**4) Udalak martxan dituen politika eta neurrien artean zeintzuk jarriko zenituzke balioan?**

- Parte-hartze garaia oso motz geratzen da
- Eskerrik asko egiten duzuen lanagatik! Eutsi horri! Dena ez delako asfalto, txakur kaka, txotx denboraldia edo 3 urteko haurrak kristalak ikusten dituelako... Gobernantza hori baino askoz gehiago delako. GORA AUZOZAINZA eta proiektu komunak eta publikoak. Besarkada bat laukote! (Ainhua)
- Positiboa
- Beharrezkoa
- Oso aberatsa, nahitaezkoa
- Egokiak
- Oso ondo, bilera horietan hitz egiten dena publiko egiten bada eta herritarrok eskatzen duguna ondo egiten bada.